AZILLA
10
Igandea
Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 irko. Iru ilen
Bilbao'atazkua.. 11,25 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 112,50 " "
Beldayen itunduba

XXIII urtia | Idazkolea ta Panakolea: Correo, 17,1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.138 zenbakija

Gayak

Ormetze'ko Pantzeska'ri

Zuk, aurtemin, idazkitxu bat bidaldu dauskuzu; eta bertan, itaunetxu au, egin: "Gareitikoak" euzkera zaʃa ez-ete?"

Eta gerotxubago diñozunez, itz ori, "enparabak" eta "los restantes" esateko erabilten dozube, oʃ, txorieʃijan.

Eta azkenez, ondo esanda daguan edo ez jakin gura zeunke, ondo ba-dago, galdubaz duan itz zaʃ oni galtzen lagatia, tamalgaʃija dala-ta.

Guk, Pantzeska, onako itauniei erantzuteko, euzko-iztegijetara begiratuten dogu, ta gero erantziu.

Zure itaune begiko oʃi erantzuteko, Azkue jaunaren iztegi nausijari begiratu dautsagu. Eta oʃek, olantxe erantzuten dausku:

"Garaiko. Gareztikoak: los restantes."

Beraz zure "garaitikoak" Azkue jaunaren "garaiko" itzaz ondo dago. "Los restantes" edo "los sobrantes" esateko-ta, Bizkai'ko eʃi batzubetan "ganetikuak" esan oi-da. Eta Gipuzkua'ko eʃi batzubetan, ostera, "gañetikuak" esaten dabela uste dogu.

"Flor de su tiempo" esateko-ta be, "garaiko lorea" esateko oturea be ba-dago.

Gitxi edo bape entzuten eztoguzan itz zaʃakaz, burdi-nausi bat ondo bete leikela esango geunke. Burdi-nausijak aʃtu ezin ixan dauzan "gareitikuakin" be bai beste burdi-txi bat...

Euzkel-itz zaʃak erabili-egin biaʃ doguz. Gaztelerazkuak, ostera, euren abeʃirantz jaurti, abeʃi - izkuntzea osotuteko biderik zuzenena ta bidezkuena be orixe da-ta.

Neskato bizkorra

Aurtemin, emen Bilbao'n bixi dan gixon ospetsu batekin uʃutizkiñez itz-egin biaʃa ixan neban.

Eta uʃutizkiñez egin ixan neban deyari, ume-abots zoli batek erantzun eutsan.

—¿Noi zara, zeu?—itandu neutsan.

—Jon—berak erantzun eustan.

—Jon'az itz-egin gura neuke, ba. Baña zure abotsa Jon'an abotsa eztala esango neuke. Oʃen abots zolija ta euzkera txukuna dozuzan umetxu zoragaʃijoʃek, ¿ixena zer dozu?

—Arantzazu.

—¡Aa! Ordubaŋ Jon etzara, zu, Arantzazu baño. ¿Nun dago, aʃatxu, edeʃa?

—Aʃatxo lanian dago. Beriala oetuko diot uʃutizkiñera.

Eta nire erantzunari itxaron barik, aʃatxori deʃuten juan zan.

Arantzazu deritxon neskatotxu onek, eztakit zenbat urte ixango dauzan. Edozetara be lautik zapaʃada aundi barik ibiliko da.

Bilbao'n bixi da, ta gaztelerea egunero entzun biaʃa ixaten dau.

Alan eta gusti be, baña, euzkerea gaztelerea baxen eʃez erabilten dau. Ama, gipuzkoaʃa dau, ta gipuzkera-antzo itz egiten dau.

Bizkayeraz jardun ixan ba'litz, eta Jon osatzaliareŋ antzerako abotsa euki, aʃaturiko baʃiketaldijan edeʃak eta bost emoŋro eustazan. Atzipetuko nenduŋ...

Bilbao'n umiei euzkerarik ezin irakatsi leikijuela diñuen gurasuentzat, eredu poliʃa auxe.

Olango eredubak argitalgaʃijak diranezkero, argitaltzia otu yaku.

Euzko-gurasuen euzkera-zaletasuneiako ixango al-da, au argitaltzeko igitu gaʃuzan zijua orixe da ixan be-ta.

URIBITAŔTE'TAŔ IBON.

Euskeltzaleen Orratza
Lko. BAT
Saltzalientzat
Saneurri bereziak
AKIETA ITXIZALE
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - Donostia

Errijetatik

OÑATE

JAYOTZA.—Eʃi onetan arkitzen dan "guardia civil" Badilo'taʃ Emili'ren emaste G. 'taʃ Pantxike'k auʃenengo semetxoa izan du. Zorionak guraso on-onoi, eta erakutsi berak lenengoz ikusi duan abeʃi gaxo au, zuek bezin maite-maite izaten.

Jayo beʃiaren osaba gure lagun on Badilo'taʃ Julen apaiz onak ugutzau zuan beronek bezela izena jaʃiaz.

ASI TA JAŔAI.—Gañean degu auʃten ere negu gogor au bere jipoi zuriakin, beraz zerbait ariñago eta atsegiñago izan dezaigun, beaʃeko zaigu gure Eusko-Bartzoki onetan zertxo bait antolatutzia; egia da notintza aundirik biltzen ez gerala, ta... oʃegaitik jaʃita dago ingi bat antzerkiak antzeztu nai dituzten guziak, nola giza-seme ala emakumeak beren izenak jaʃi ditzaten, beraz jakiñean zaudete anai aʃeba maiteak; zuen izena emanaz, ekiŋ ta jaʃai lanean.

PELOTA-TXAPELTZA.—Aurten aurkestuko dira lenengo aldiz pelota txapeltzarako Batzoki onetatik, Aʃegi'taʃ Jenar eta Irusta'taʃ Eʃamun moʃosko jatoʃak; alegindu mutilak txapeltza ori zuenganatzen, baño ala izango ez ba'litz ere, ez bidur izan, aurten ez dana uʃengoan izango dek eta.

MUS-TXAPELKETA.—Txapelketa au ere ikustekoak gera aurten gure Eusko Etxe-onetan; zaletasun aundia dagonik biko ugari izango dirala zer ezamk ez. Beraz izenpetu nai dezutenok ila onen 15 'gko. egin zenezazuteke oʃetarako Eusko Etxean jaʃita dagon ingian, eta irakuʃi bertan txapeltza oʃekiko Araudia. Beraz gertatu mus-zaleak; begiak zoʃotz, baño kiñurik ez e? Txapeltza oyen gora-berak azalduko ditugu beran garayan. "Lauaxeta" jaunak tokirik usten badigu. Uʃenarte.

JATURABE.

Uaʃa.—¡Bai, gizona, bai!

LEGAZPIA

ABEŔTZALE BAŢEN GOGO-ALDEZ.—Igandez mendiaŋ il zan Eʃomarate'taʃ Maren abeʃtzale gastia izan zan gogoaren alde Euzko-Batzokiak eratu duan jaupa, gauʃ igandez, goizeko bederetzietan izango da. Jaupa-ondoren Perosi 'ren "Liberame" abestuko degu. Danok dakizuten bezela abeʃtzale ona ta leyala zan Mareŋ gaxoa. Eʃiko abeʃtzale guziak, ba, jaupa oʃetara etoʃi beitez.

ILINTXA.

MOTRIKO

"GARBIÑE"-ANTZEZTIA.—Gure antzezlariak Deunoro egunez eman zioten asiera aurtengo antzezti-aroari, iragaʃi bezela Garbiñe antzezturik. ¡Bai jendearen eramana!

Aʃatsaldeko erdirako txartel guziak eman ziran eta aʃatsaldean makiña bat gelditu zan kalean. Antzeztia asi auʃean emakumeen aretoa plei-plei agertzen zan. ¡Ura edeʃtasuna! Antzezlarientzat ez daukagu itz zataʃ bat ere. Gure itz edeʃ eta zorion beroenak ez dira aski euron lana bear dan neuʃiz goraltzeko. Gauʃ ere bigaʃen aldiz antzeztuko dute, auʃekoan ikusi-gabe geratu ziranentzat. Ziur gaude oraingoan ere jendeak euʃez erantzungo duala.

ANDONI.

SEGURA

EUZKEL-IZENA.—Galparsoro'taʃ Jon Mirena'ren emazte Ariztimuño'taʃ Pantzeska'k izan duten alabatxoari "Miren Julene "euzkel-izen politak ipini dizkicte. Aur jasotzen Gabiri'ko Antia'taʃ Dunixi eta emengo Ariztimuño'taʃ Iñake izan ziran.

¡Zorionak!

AMERIKA'RA.—Etxebeʃi'ko Kataraiη 'daʃ Jon Mirena mutil gazteа ere Ameriketara juan da. Ondo ibili ta laister aberastuta etxeratu!

GEXO.—Gexo eta elizakoak artuta dago Markitegi'ko Intxausti'taʃ Joseba Benita (Jose Benito). ¡Laister osatzea opa diogu!

EZKON-DEŢAK. — Deun guzien edo Dominu Santuz asi zuten lenengo deia, gure Eʃekondo'taʃ Nekane, E. A. B.'ko bazkide langileak eta Mutilo'ko Intxausti 'taʃ Ander, aberkideak. ¡Eten gabeko zorionak opa diz'itzuegu, artzen dezuten bizi bide beʃian, baña ezkontzen zeratela -ta ez abertzaletasunari utzi, baizik len bezin langile jaʃaitu!

—Baita ere igandean asi ziran, Zabale 'ko Azurmendi'taʃ Igo'ren deia Legazpi'ko Ugarte'taʃ Miren Sorne'ekin eta Aʃabiola 'ko Ariztimuño'taʃ Kosme, Mutilo'ko Murgiondo'taʃ Andone'rekin. ¡Zorionak!

JAIOTZA. — Madalena'ko Elortza'taʃ Kasimir'en emazte Etxebeʃia'taʃ Sabiñe'k alaba izan du. ¡Zorionak!

ERIOTZA.—Elosegi'taʃ Koldobike alargunari, azken laguntzak artu ondoren Jaungoikoak deitu du. ¡Golan bego

AGURTU.—Bilbao'tik etoʃita agurtu zituzten Nolte'taʃ Ernesto, emazte ta semetxoarekin.

PELOTARIAK.—Igandean zuten beʃiz ere gure pelotariak, Beasain'en Zumaʃagataʃakin jokaldi eta galtzeko txanda nunbait eta galdu egin zuten, beste baten irabazi bearko.

OTAŔA.

ANTZUOLA

Gure txoko ontan beʃiz ere asi zalgu 'gramola"; len ere ba-gendun ta baztertu egin zan. Orain galdetzen det, ¿zergaitik baztertu edo ixildu zan? Irakurle, oyek guziak idazten asiko ba'nintzake, txikiegia litzake gure EUZKADI aundi au, baña guzia ezpada ere, zerbait idaztera noa.

Igandean zortzi asi zaη "gramola" beʃia ta sosik atera gabe dantzarien aldetik. ¿Zer deriskiozue? ¿Ondo, ezta? Bai, au ondo iduritu zait neri ere, baña ondo ateriak edo ondo ateratzeko izan bear dute, esaten dutuenez, lau mila laurleko inguru balio omen dauz, ba. Udalak erosi omen du, lau urtean ordaintzeko. ¡Bapo! Kaxo mutilak- Len ere ba-gendun gramolea udalak xemei atera gabe, baña gramolea oso soñu arlotea omen zan eta nayago zuten asko ezer entzun ez. ¡Etzan komeni! Batzuentzat, batez-ere zliñegotzi dan batentzat.

Eta orain bereau aukeratzale edo komixinua lengoak? Ez al zizun komixinautziagaitik ezer ematen? Bada zerbait esan genezake, len txaʃa eta orain ona, oso ona. Eta lengo gramolea eskeñia izan bear du udaletxeari amaʃ mila eʃialean eta onek "nones" esan omen du. Ezta erantzun ere. Lengoa erosi eta beʃia? Zein da egokiena eʃiarentzat? Gero esango dute eʃi jasotzaleak, zaindariak eta agintariak dirala. ¡Bai benetan agintariak zerate, ezin uka! ¡Alajaña! Lezio edeʃa eʃiari ematen ari zerate.

Orain komixionerlu onek aitzaki ematen du lengo gramola ori ondatua omen da, bonbila asko eʃetzen omen ditu. Eta idazkian zer jaʃi zuten? "Se entregará en las debidas condiciones". ¿Zer demontre oʃen beste aitzaki?

Beste galdera bat komixionero oʃi: "Oʃ zuk ondo dakizu "Sociedad de Autores" i ezer ordaindu beaʃik izango duan-edo udalak? ¿Ezta? ¡Onak gaituk gu, onak!

FLORMENDI

MUX'KA

DEUNORO-JAYAK.— Deunoro, Domusantu, deun gustijen eguna. Egun onetan, ilan lenengoko barikua ixan be-ta, bai Ertxadonan (paʃokijan) eta bai Ariatza 'ko gure Elexan Jaunaʃtze edeʃ ugarijak ixan ziran. Batez be, gixonezkotan asko; baña arimen egunian be. Arimen-egunian, larunbata iluntzian, Aʃonategi Pantzeskataʃ Aba aguʃgaʃija Ariatzaratu yakun, utoʃtzak entzunaz... gogo-garbiketak egiteko. Igande goxeko 7'etako jaupean (mezatan) Ariatza'ko Elexia gonburu beterik zan; eleiz-erdiiik auʃerako gustija, gixon eta mutil-nagusijakin. ¡A zan edeʃtasuna! Jaunaʃtze uʃengorik-uʃengora egiη zan.

Olantxe: Lenengo, gixonak eta mutil nagusijak; onein uʃengo andrak; gero, mutikuak; onein jaʃayan, neskatuak; eta azkenez, neskatilak.

Jaunaʃtu biiaʃtian, "Ogi-zerutik" eta abaʃ, euzkel-abesti gozo-samuʃak ugari entzun ziran. ¡Eleizkixun samufagorik...! Aʃatsaldian be, jai edeʃa egin zan. Gure Jauna agirijaη zala, Aguʃtza abestuba, ta Aʃonategi Aba zintzuaren itzaldi onuragoʃagaz. Onek goizpaʃkiko. Ugazaba ta otseña gaitzat aʃtuta, geidiari "parkatu" ta alkaʃ maʃe-ixaten ikasi, alkaʃ maʃe daigula, zintzo be, zintzo esan euskun. Oteunagazko onespenaz amaʃu zan Eleizkixun begikua.

Saspi urtian geure abade zintzua baxen langile on maʃia ixan dogun Etxebaʃia 'taʃ Biʃor jaunaren bijotza geyen poztuko dauna, igandian, Jaunaʃtze oroʃagaz, beren eleiztaʃok erakutsi geuntson eskaʃ ona, bijotz-aguʃa... ixango dala uste dogu.

Zorun osua dopaltzugu ba, zeukin emen ixan dozun, Dunixe, aʃeba zintzo-zintzo oʃekin batian.

DABILTZANAK.—Aʃospide ta Basabe 'taʃ Jon osalari aundija, bere emazte oregaz batera, Gernika'ko Ilobijan ixan zan, Deunoro egunez, eta arimen egunian Zumaʃaga'n, "Uribiʃarte'taʃ Ibon" emen ixardogu, "Domusantu-mezak" ataraten etoʃita.

Etxebaʃia'taʃ Biʃor jaupari jaunak beren "etxe-aldatzia" egin dau Ariatza'tik Mundaka'ra.

GEXORIK. — Insunza'taʃ Koldobika, Egiluz'ko Jon'an seme gastiena, Bilbao'n gexorik txaʃtotxu zala, uʃutidatz bidea jakin ebaneko, gure Jon, Bilbao'ratu zan Obarantz egiη daula entzun dogu, eta poztuten gara. "Zitze" basetxeko mutil gastiari Bilbao'ko San Sebastian'en osategijan ebakuntza bat egin dautsoe. Ondo aurkitzen dala jakiiiak poztuten gaʃu.

LUGIÑAK BIZKOŔ.—Igazi dan asteko axe-epelakaz aʃto, indaba eta abaʃ, etxeratzen gautegun zoli ibili dira.

Gari-ereʃen be asi dira, zeñek lenagu ta obeto erein ixil-antzo baña... "pin" "Kanpo-biertxuek egin ondoren "txaʃ -zeziñak" il, gatzunaskak bete... eta etoʃiko dan negu ankeʃan gogoʃ egiteko gertakixunak ondo egiten diñardue baseʃitaʃak .Oneʃariko bati, neguari gogoʃ jarkiteko ondo gerteuta zanentz iʃandu geuntsonian, esan euskun:

—Negua, osuan, "bonbardietako"... guk, gai bat baño besterik eztogu palta. Bestiokin ezkagoz ain txaʃto be.

—¿Zer palta dozue ba?

—¿Zer palta dogun?... "Ametraladorentzat..." gastañe-goʃinguak.

—¿Eta oʃeik ba'zeunkez zeuek gura beste?

—¡Mussolini bera be, izutuko geunke!

IKASLE AZKAŔA.—Ikasle azkaʃak, euzkotaʃen aʃtian ugari doguz baña, Itza eta Elgezabal'daʃ Biʃor, "Elgezabal" basetxeko gure muxikaʃ jeltzale begiko au be, ezta aziaren azpirengo oʃija.

Mutil zoli au 1933'gaʃen udan, asi zan "batxiller", ikasten eta 1935'gaʃenian amaʃu dauz 6'urteko "batxiller"-ikaste gustijak; eta Vallaoolid'ko Ikastetxe nagusijan sarkuntza, ingreso, esaten yakona egin. Urte bijan 6'urtiak urte bijaη batxiller eta ez gero edozelan... oaʃ (nota) goenenguakin baño.

Esango dabe gero... euzkeria ikastijetarako eragozpen andija dala. Gure Biʃor gaste au ba, Muxika'ko basetxian euzkera utsa baño besterik ikasi bako mutila ixanda; eta erdeldun... diran beste askok, 6'urtiaη nekez amaʃu dauezaη ikastiak urte bijan amaʃu dauz; eta edeʃtotxu egin be. Beraz, euzkeria... ikastiietarako eragozpena dala-ta baʃiketan ibilten diranak, okeʃ dagoz.

"Aʃabitxi... ona daukenak... "nota" onak ataraten yozak"-esan daroe. Eta ementxe aiη txaʃto dabixanik eztot uste. Gure Biʃoʃ gaste argijak ba, Aʃabitxi ona dau "zekule bada". Berbetan ikasi ebanetik gauʃ aʃte, euzkeraz dakijenakin beti euzkeraz itz egin ixan dauna; uri aundijan bixi aʃen beren alabatxu poliʃari euzkel -ixena ezaʃi, euzkeraz irakatsi eta euzkeraz nun nai eraiten dautsona; osalariik ospetsuenetarikua; jeltzale zintzua, eta... Gixon osua, (bere aʃa dan lez) Aʃospide eta Basabe'taʃ Jon Mari jauna, muxikaʃa au be.

Itza'taʃ Biʃor gastiaren Aʃabitxi ezta ba, edonor... Eta guk zuri, Biʃor, zeure Aʃabitxi'ren antzeko argija ta jeltzale -eredua, gixon osua... ixaʃia opa dautzugu. Euzkadi gure Ama gaxo onek, osatuko ba'da... seme argi ta zintzuen biaʃ ixena bai-dau ta. Gixon osuak, biaʃ dauz Euzkadi'k. Prakak eta txapelak... bakaʃik eztabe baña, gixona osotuten... baʃuragokoak baño; batez be txapel eta arkondarapeko beste gauza batzuk dira gixonaren osokijak.

Zentzun oneko adimen argija, eta bijotz apal maʃalia dira gixona osotuten dabenak.

Buruaren esana
Bijotzak ba'dagi...
Indaʃa ezta ixaten
Iñoizbe galgaʃi.

Bijotza jagi ba'dai
Baña, buru-aurka...
Amak seme dolora
Ordutixik dauka.

Beraz irakasle, lagikari, osalari eta abaʃ, eta abaʃ, euzkeltzale, oʃura on-zale, itzez eta egiiez... diran jeltzale-ereduak biaʃ -biaʃak doguzala ez aiztu Biʃor. Onein artekua ixateko zeure Aʃabitxi zintzuaren bidietatik jaʃaitzia naikua dozu. Eta zeu olakua zaralarik... zeure ondoren... jel -bide ziar, Elbururaño, eruan al zeinken euzko-gastedijak... Jaun - Goikua'ri eta Euzkadi geure Amari emongo leuskijon poza ze neuʃiʃakua ixango litxaken ondo oldoztuten ba'dozu baʃiz... eskier, ziur, gagoz "Gixon osua" ixatera elduko zarila.

Olantxe ixango alda ba.

Zorijonak zeure guraso zintzoakin batian.

E.'taʃ K.

MAÑARIA

ELIZKIXUNAK. — Arimen egunian, garbiʃokiko arimen-aldezko elizkixunak lagun askogaz egin ziran. Eta, il ontako enparau goiz-iluntzijetan be, gokaxuen aldez eʃime eskatzen da.

Azila, il maʃagaʃija... Ildako senide ta aizkidiekaz berariz gomutetako il gogoangaʃija... Goyan begoz...

AZKARI BAT.—Madariaga'taʃ Nikasanderak, Kamiruaga'taʃ Basili jauna'ren emazte zintzuak, lengo egubaztenian azkari edeʃ bat opaldu euskun. Azkari ori, emen igaroriko udaldijari aztken aguʃa egiteko opaldua ixan zan. Oʃetarako, bertan, lagun-mordo edeʃa batu gintzazan; eta, olakuetan oi dan lez, bakez ta umorez gauza on askotxo jan genduzan. Ori dala-ta, senaʃ-emazte begikueri, bijotzetiko eskaña agertzen dautsogu. Eskeʃik-asko ba...

JUAN-ETOŔIJAK.—Bilbao'ra juan zan Mañarikua'taʃ Miren Karmele emakume begikua.

—Kamiruaga'taʃ Basili ta Kastor anayak eta Madariaga'taʃ Nikase andera be, emen udaldija edeʃo baten igarota, lengubenez Bilbao'ratu ziran.

Agapita ta Kapanaga'taʃ Danele anderaAgapiña ta Kapanaga'taj Danele anderañua euren lobatxuakaz.

ARTZAÑAK.—Emeko artzañak, aurtengo aʃtuliak (lanak) aste ontan saldu dabez. Aʃobia, bost ogerlkuan. Igaz baño, aʃobako, iru laurleko geyago aʃtu diñubez. Ezta txaʃto be...

Amasei aʃtzain batu ziran. Eta, euretariko amaʃek, emeko jatetxe baten, bazkari eʃimia jan eben. Beste enparauak ostera. Atutxa'taʃ Estepan eta "Agefe,,'ko Kuireka (Ziriako) buru ebezala, plaza ganeko zugazpian baso-koipetsu egin eben: "mama-gozuaz" burduntzikua jan eben. Orixe dok ixan be basoko legie... burduntzija ta koipetsue... Eta gero, mustuʃetako koipiak kentzeko, sei artzañok be, jatetxera juan da, aketa "kapia" gozo gozo edan eben...

MAÑARIKO.

ERRENDIO GOIKOA (ASUA)

Gure eʃiko E. A.-B.'k eta antzokijak eratuta gauʃ igandez batzokiko antzokijan euzko-antzezkixuη eta puntziñuak ixango dira. Aʃatsaldeko lauretan asiko da eta Euzko-Jeltzale Alderdiko izlari bi berba -egingo dauskube. Amayeran batzokiko antzezlari trebiak "Oleskari bijak" euzkeraz antzeztuko dabe. Gabeko zortziretan, be, antzeztuko dabe. Batzokija bete beterik ikusiko dogulakuan gagoz.

Au da euzkerea ikasteko erarik onena. Abeʃtzale gustijak, txikiijak eta zaʃak geure batzokijan ixango dira gauʃ.

KEPA.

Muni umearen erioti

"Ramayana" poematik artuta

(AZKENA)

—Arkua eskuan detala juan naiz Sarayu ibai-eʃtzera, gabaz ura edatera jaiten diran bufalo edo elepanteren bat iltzeko asmoz. Urez betetzen ari zan pitxaʃ baten durundia entzun det, eta elepantearen oʃoa dalakoan, itxu-itxuan jaurti det nere pletxa zarata aren aurka. Onelaxen il det zure semea, biotzaren erdi -erdian pletxa josirik.

Ezjakiñean egin det nere txaʃkeria, ene Muni jakintsu agurgaʃia! Aldendu egizu nere gañetik zure aseʃea ez nazazu, Aʃenmadarikatu.

Au entzutean, Muni konortik gabe eta itzik gabe gelditu zan. Itza etoʃi ezitzayonean auxe esan ziran negaʃ batean. Eta bai nik eskuak kurutzetuta ixilik entzun ere:

—Baldin jakiñen ganean il ba'dezu Muni baten semea, zazpi bideʃ estandatuko al zaizu burua, eta zuk, oñak ipintzen dituzun luʃak su aʃtuko al du.

Baña, baldin ez jakiñean izan ba'da, zure zigoʃa ariñagoa izango da.

Eraman nazazu, eʃegai oʃek, nere semea ilda dagoan lekura. Ezin ikusi degun ezkero eraman gaitzatzu bere gorputza, bere odola, eta bere buruko ileak ikusi ditzagun.

Eldu giñan ibai ertzera: bakarzaleak ikutu zion eskuz luʃean seʃaldo zegoan semeari, eta naigabe deadaʃ aundiak egiñaz bere gañera erorí zan.

Amak, semetxoaren arpegia laztandu ta miaztu zegian ixil-ixilik, beyak bere txaʃ jayo beʃiari egin oi dion bezela.

—Besarkatu nazak, ene semea—esaten zion. Itxaron ezak pixka baten eta geroago juango aiz ildakoen bakaldunefira. Itxaron ezak, eure aita eta neoni ere eurekin batean juan gaitezan.

Eta gero aitak esaten zion: —Ene seme, ez al diat ba ire abotsik geyago entzungo? Ez al dizkiak ba Bedas liburu santuak gabaz geyago irakuʃiko? Nork poztuko natxiok ba otoitz egin ondoren, ura zabaldu ondoren, sua garbitu ondoren.

Nork batuko zizkiguk ire amari ta neri gosea kentzeko beʃaʃ, sustrai eta arnari basatiak! Eʃu gabe il aiz, ene [illegible] iritxiko dituk itzultzen ez diran [illegible] riontsuen luʃaldeak; asieratik [illegible] Bedas liburu deunak irakuʃi ditun[illegible] ni'ak dauden leku zerutaʃak; [illegible] beiak giltzapean euki gabe, lagu[illegible] ari laguntzeko izan zituztenak [illegible] kiak; euren uʃe ta luʃakaz [illegible] tasuna erakutsi dutenak, eta beti [illegible] dutenak iritxi dituzten leku [illegible]

Negaʃ abek egin ondoren, Muni emazteak ur garbia ekaʃi zuten [illegible] ren gorputza garbitzeko. Eta [illegible] tenean, Muni'k neugana zuzen[illegible] ikaragaʃi abek esan zizkidan. Bai[illegible] lik eskuak kurutzeturik entzun [illegible]

Nai gabe egin dezu zeure [illegible] baña gaiztakeri guztiak izango [illegible] zigoʃa. Ni, nere begi itxuak [illegible] duten semearen naigabeak ilko [illegible] zeuk ere ezin ikusi al izango [illegible] semea zeure eriotz orduan, eta [illegible] nayak biotza eʃeta lagako dezu [illegible] zla.

Ara emen ba, ene emazte eʃe[illegible] ni'ren madarikazioa gauʃ neuzan [illegible] terik. Neure seme Rama ez ikusi [illegible] rama nere bizia, uriolak eʃeka[illegible] zugatzak sustraitik atera eta a[illegible] maten dituan bezela.

Ai, ene Rama etoʃiko ba'litz, [illegible] entzungo ba'nituz, bere eskuak [illegible] ba'lirake!

Baña nere begiak ez dute ikusi burua iluntzen dijua... Zorion[illegible] emaztea, nere seme Rama'ren [illegible] atzeʃitik datoʃenean ikusiko [illegible] Udazkeneko ilargi betea bera [illegible] agoa ta dizdiratsuagoa dan Ra[illegible] pegi edeʃ ura ikusi al izango [illegible]

Onelaxe itz egiten zuan, iñoiz gabe Dasaratha eʃege aundiak, bere oe edeʃean eriotz orduan [illegible] izaʃak goizaldean bezela bere [illegible] uʃeratuaz.

Eta itz abetxek españetan [illegible] zan, Rama etxetik ateratako [illegible] nean, gaberdia igaro zanean.

AŔITOKI

Euzko-Gastedi
Euzkel-Ikasle

ANDERA ZARA NESKA[illegible]
KATUBA

Andera zaʃ bat bixi zan [illegible] egaz eta katu bigaz. Oneik [illegible] ebazan andereak.

Otordubetan andereagaz [illegible] ziraη eta bakotxak bere azpilei[illegible] notiñak lez. Neskamiak ezeb[illegible] ikusten, eta alan, andereari [illegible] esan eutsan:

—Bakixu anderea, katu o[illegible] gauza ona ixan biaʃ, susmo[illegible] sorgiñak dirala edo alde t[illegible] rea?

—Ezegixu esaη orí, emakum[illegible] buaren.

—Ikusi dagigula gura do[illegible] -la ba.

¡Josus!, esan eban neskam[illegible] tubak entzunda añeketan juan [illegible] ruta lez. Anderea ta neskam[illegible] geratu ziran.

Andereak neskamiari agindu xon bat ekaʃteko ta eruateko [illegible] etxetik.

Zegaʃik katubak igesi-egite[illegible] sus entzunda...? Neskamiak, [illegible] an egoten etzanian. Josus es[illegible] kotxian itxuski-kirtenagaz j[illegible] ko, eta au saʃi egiten eban, [illegible] tubak Josus'aren ixena ent[illegible] tetan eben makilea eta zora[illegible] egiten eben.

BILBAO

MUXIKAKO„'RI.—Gauʃ-amabost Euzkel-Atala'n argitaldu zan zure idazki begikua irakuʃi neban, "Muxikako". Eta bertan ainbat eʃiiaʃ izpaʃ irakuʃtian poz -pozik geratu nintzan.

Atxika-Alende'taʃ M. E. A. B.'ko lengo diru-zaña ezkontzen dala be iminten zendun. Eta zeu, ¿noz egiten zara, ba? Entzun dodanez, zure ezkontza-eguna be, Bizkaʃgi'tik berantz abijatuba da. Beraz aʃtu-egixube ezkongai bijoik neure zorijon-aguʃik bijotetikuena.

EUZKEL-IXENA.—Artetxe'taʃ Keletin eta Bolibar'taʃ Peli senaʃ-emazte abeʃtzaliak, semetxu baʃija ekaʃi dabe. Eta eure lenengo maʃe-loratxubari, Eʃuperta euzkel-ixen politа ezaʃi dautsoe.

Jayopaʃitxu onen aʃabitxi-amabitxijak. Artabe'taʃ Joseba ta Artetxe'taʃ Martiñe ixan ziran. Zorijonak.

GEXO-ETXETIK URTENDA.—Igazi dan ilian Aʃasate'n zauriiu de[illegible] 'taʃ Masima abeʃtzalia, lengo e[illegible] xo-etxetik urten zan. Ondiño, [illegible] osatuteko, ebakuntza txikiren biaʃa ixango dau, baʃuban[illegible] yakazan bala-zatijak atara bi[illegible] -eta.

Ainbat lenen osatuko al-da.

TXINDOR-I

GALDAKANO

IZPAŔ-BALTZA.—Igaro [illegible] an il zan Zabalgane'ko auzote[illegible] mika'taʃ Kepa mutil gastia.

Aʃtu begijez beren anai-aʃeba[illegible] taʃ gustija nire tamal-aguʃa.

BASAKIÑA'RI.—Zeure igan[illegible] kijan ordiba ixan dotela ze[illegible] diñostazu, bai, benetan aldi [illegible] naz ezer idatzi-barik asti ezag[illegible]

Baña... zer nai ixan dozu "[illegible] itxi ta eʃiko idazliak asi gadi[illegible] idazten".

Ze bilduf eta kalabaza, j[illegible] keraz idazteko! ez, ori ez, [illegible] Abeʃija'ren alde lan egiteko [illegible] 'geunkike zetarako ez-ete gen[illegible] ik eukiko?

Eʃiko izpaʃak idazteko zeu [illegible] kijau ustetan dot, ta gañera [illegible] idazle jolijau zarean lez bide[illegible] ten dautzut ta auʃerantzean [illegible] agertzen ba'yakuz eʃiko izpaʃ[illegible] egixu nire aguʃ bero bat.

GO[illegible]

Katalin

I

Begi erneak ditu Katalin edeʃak,
begi erneak eta erneko biotza:
kantari asi dira basoan epeʃak,
neskaren belaʃian maite-kanta-otsa.

Amari esan dio bakar sukaldean:
Oregi'ko Patxiku zegon gaur soroan.
Bakaʃikan nijoan itufi-bidean,
lana utzita etoʃiz jaʃi zait alboan.

Oregi'n nai nuke, ba, beʃitu kabia,
—esan dit—, poztu dedin txori kantatiaz.
Ortako zugan daukat ustea jaʃia:
baietz esan zaidazu beñepein begiaz.

Suak gaʃa dario sukalde zaʃean:
Katalin'eη musuak su-gaʃa diruʃi,
ta iripartxo ezti bat ama-ezpaiñetan,
itxaropen lora lez, lertutzen da ageri.

II

Praile bizar luze bat eldu da eʃira:
eʃi osoa dabil Mixio donean.
Jaun-Goikoaren itzak azi indartsu dira
biotz-luʃak apalki jaso oi ditunean.

Katalin'ek ez du nai eʃomerira juan,
senargaiareη itzak orain zaizkio min,
Jesus ona baitauka musuka baʃuan
maitale au besterik etzaio atsegin.

Argi aundi bat zaio piztu biotzean,
ega indartsuak sortu zaizkio gogoan,
ta indarka goruntz-dagi egada luzean
kabia jaʃi nairik Jesus'eη alboan.

Itxaropen-lorea malkoeη beroaz
amari igartu zaio ezpaiñen gañean:
alare fede biziz esan dio: Zoaz,
izan zoriontsua Jaunaren etxean.

III

Usotegi bat dago menditxo gaiñean,
uso zuri-zuriak uʃumaz baʃuan:
euskal-uso beʃia gaur sartu denean,
pozez uso guziak aren inguruan.

Pozaren pozaz negar-dagi usotxoak,
arkitu baitu opa zuan aterpea.
Oregi basetxean mutil gizajoak
negar, ezin-azturik. Katalin maitea.

JAUTALKOL.

Idazle gustijai

Idazle aizkidiok: aspaldijon berein idazle agertzen yakuz eta pozik gagoz. Baña idazlan gustijak ezin daikeguz argitara, tokirik eztago, ba, geure izpaʃingi onetan. ¿Zer egin? Eʃi askotako izpaʃak moztu edo labuʃtu doguz. Ori dala-ta iñortxu, be, ezpedi asaʃatu.

"Agarel" zanatzaz, be, ainbatek zerbait bialdu dausku. Asmo auxe aʃtu dogu: datoʃen astian oʃi oso bat opalduko dautsogu "Agarel" ixan zanari, beraz antxe agertuko dira Enbeita'taʃ Kepa, "Abendeʃi", "Andoni", "Uʃe" eta beste askoren oleʃki ta idazlanak. ¿Ondo deritxazube? Olantxe oʃi batean batuko doguz "Agarel" etzaz idatzi diranak.

Euzkel - idazliak ugariiuz doaz. ¡Auxe poza! Baña zelako tamala daukogun bijotz - baʃuban! ¡Tokirik ez- Geure eskubetan eztago, ostera, toki-egiiia. Oʃitxu batean ezin saʃtu geiukez beʃogetamaʃ idazleren lanak. Beraz, ba, bateren batzuk argiʃaratzen ezpa-dira. iñor ezpedi asaʃatu.

LAUAXETA.